

«Mila esker, Gisele»

Amagoia MUJIKATELLERIA

Mila esker, Gisele», zioen pankarta batek Avignon-go epaitegiaren parean. Barruan bortxatzaileen inguruko epaia irakurtzen ari ziren. Kanpoan, pankarta horrek mundua habitatzen dugun emakume gehienon sentipena jasotzen zuen.

Izan ere, Giselek anonimatua gordezko aukera zuen, epaiketa modu publikoan ez egitekoa. Baina berak aurpegia erakutsi du munduaren aurrean, ez baitauka lotsatzeko motiborik. Hori bere lehen lezioa; bortxatua, erasotua, zapaldua izan den emakumeak ez dauka aurpegia ezkutatu beharrik. Ez dauka azalpenik eman beharrik, ez du ezer egin. Ardura, erantzukizuna, errua eta lotsa beste aldean daude, bortxatzaileen aldean. Begira dezagun horrantz.

Ez da hori eman duen lezio bakarra. Gertatu denaren larritasunak dimentsio ikaragarria dauka. Gorputz horrek jasan duena ezin da hitzekin azaldu. Eta, hala ere, gorputz horrek zutik jartzeko indarra bildu du. Eta munduaren aurrera agertzekoa. Askotan esaten zaie emakumeei inoiz gertatu dakieken okerrean bortxatuak izatea dela, hortik ezin dela atera. Tira, emakumeak erabaki dezala zer den bere bizitzan gertatu zaion onena, okerrean, erdipurdikoena... Emakumeak erabaki dezala nola orbaindu zauriak. Inork ez dezala zulora kondenatu beste batzuek egindako izugarrikeriengatik.

Miresmen infinitua Giselerentzat. Eta goraipatzekoa da erakutsi duen ardura ere, bere seme-alabak, bilobak eta munduko emakume guztiak izan

ditu gogoan goizero epaitegira abiatu denean. Denentzat mundu hobea eraitzeko grinak mugitu du, berak aitortu duenez.

Bazen kezkatzen ninduen kontu bat; Pelicot abizena. Krudela iruditzen zitzaidan horrelako mina egin zionaren abizena arrastaka eraman behar horrek. Krakatekoa sentitzen nuen Giseleri buruz ari zirela Pelicot esaten zioten bakoitzean. Azken egunetan jakin dudanez, Giseleren beraren erabakia izan da, epaiketa mediatiko hori Pelicot abizenera lotuta gera zedin betiko.

Berak dagoeneko ez dauka abizen hori, ezkondu aurrekoa jantzi du berriro. Eta bere bilobei eman nahi die herentzian. Abizen libre eta ausarta. Zoriontasunera ahalik eta gehien gerturatzea opa diot Giseleri. •

Hemen biktima guztiak ez dira berdinak izan

Miren AZKARATE
BADIOLA

Alaia Martin Etxebestek emandako elkarrizketa batean zioen bezala, hartutako gai hori ez zen bururatu zitzaion lehenengoa izan. Eta nik ere tarte honetarako beste gai bati buruzko artikulua nuen prest; beraz, gaurkoa, Alaia, zuri esker da.

Lehenik eta behin, zorionak, txapela irabazteagatik. Gainontzeko bertsolari ere bai, bakoitzak egindako ekarpenagatik eta egindako lanagatik. Bejondeizuela!

Bigarrenik, eskerrik asko, Alaia, torturaren gaia, aspaldiko partez, lau haizeetara zabaltzeagatik. Zuk ongi esan zenuen bezala, «nahiz dena ahaztu nahi dugun, pasatu ez balitz gisan». Torturari buruzko jardunaldi batzuetatik iritsi nintzen justu etxera zu gai-jartzaileak jarritako gaiari buruz pentsatzen ari zirela. Sofan eseri, eta bigarren bertsora arte ez nizun igarri zein zenuen aurrean elkarrizketatu bezala. Oilo ipurdia dut sabelean eta nonahi, bertsoak entzuten ditudan aldiro. Zer esan? Nola eskertu?

Torturatuok bakardade handia sentitu dugu eta gatazkaren biktimarioan azken postutik gertu gabiltza.

Mapamundian Euskal Herria koka dezagun eta Euskal Herriak kokatu dezala tortura agenda sozial eta politikoan. Gertatu baitzen, milaka gorputzetan, burutan, bizitzetan, guztiongan. Tortura ez baitzen izan atzo, gaur eta bihar ere bada.

Bihotz ez hain apurtu honetatik mila esker, lagun, oso duin zabaldu dituzu hitzak. •